NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA — FEDERACION NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS

# COVID-19. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

# EGUNGO EGOERA, 2021EKO IRAILAK 10

## Prebentzio neurri orokorrak

| | | |
|---|---|---|
| Pertsonen arteko 1,5 metroko tartea, gutxienez. | Eskuak garbitzea soluzio hidroalkoholikoarekin edo ura eta xaboiarekin. | Azalerak garbitu eta desinfektatzea. |
| Lokal eta instalazioak maiz aireberritzea (ahal dela aireztapen naturala) | Kalean bakarrik erretzen ahalko da 2 metroko segurtasun-tartea bermatzen bada. | Maskara erabiltzea uztailaren 13/2021 Errege Lege-dekretuan arautatakoaren arabera.<br>Haur Hezkuntzako 2. zikloan maskararen erabilera ez da nahitaezkoa aire zabaleko eremuetan, ezta jolas-orduetan ere. |

## Lan arloko neurriak

- Gomendatzen da enpresek langileen sarrera-irteerak malgutu ditzatela.

## Bilerak esparru publikoan eta pribatuan

- Ez dago baimendua 10 pertsonatik gora biltzea eremu publikoan, horiek bizikideak ez badira, eta ez da gomendatzen halakorik egitea eremu pribatuan, edota bilera horietan hiru bizikidetza-unitate baino gehiago elkartzea.

## Garraioa

- Ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduan ezarritakoari men eginen zaio.

| | |
|---|---|
| Ostalaritza eta jatetxeak | • Baimenduta dago taberna, jatetxe eta establezimenduen barnealdea irekitzea.<br>* Oro har, %60eko edukiera gehienez.<br>* Gehienez ere 6 pertsona mahaiaren edo mahaien inguruan 70 cm-ko tartea bermatzen bada pertsonen artean<br>* Ez da edukiera-mugarik aplikatuko 22/2021 FA-n ezarritako baldintzak betetzen dituzten establezimenduetan.<br>* Ixteko ordua: beranduenez, 01:00ak.<br><br>• Terrazetako zerbitzua mantendu ahalko da honako baldintzekin:<br>* Mahaien arteko tartea 1,5 metrokoa izanen da.<br>* Gehienez ere 10 pertsona mahaiaren edo mahaien inguruan 70 cm-ko tartea bermatzen bada pertsonen artean.<br>* Terrazetan debekatuta egonen da erretzea 2 metroko segurtasun-tartea bermatzerik ez badago.<br>* Ixteko ordua: beranduenez, 01:00. |
| Diskotekak eta dantzalekuak | • %50eko edukiera gehienez.<br>• Gehienez ere 6 pertsona mahaiaren edo mahaien inguruan 70 cm-ko tartea bermatzen bada pertsonen artean<br>• Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.<br>• Ixteko ordua: beranduenez, 01:00ak. |
| Hotelak | • Eremu komunetan ezin izanen da gehieneko edukieraren %75 gainditu. |
| Aterpetxeak | • Gehieneko edukiera %50 logeletan ohatzeak (literak) badaude.<br>• Gehieneko edukiera %75 logela bereiziak dituzten aterpetxeetan. |
| Beilak eta hiletak | • Aire zabalean, gehienez, 100 pertsona.<br>• Toki itxietan, gehienez, 25 pertsona.<br>• Barnean egindako errausteetan eta agur zibiletan, gehieneko edukiera % 50koa izanen da, eta gehienez 400 pertsona. |

<table>
<tr>
<td>Gurtza-lekuak</td>
<td colspan="2">

- Gehieneko edukiera ezin izanen da inolaz ere 400 pertsonatik gorakoa izan. Errespetatu beharko da pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun tartea.
- Sarrerak eta irteerak modu mailakatuan, pilaketarik ez gertatzeko

</td>
</tr>
<tr>
<td>Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, eta bestelako ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibilak</td>
<td colspan="2">

- Gurtza-lekuetan: ez da 400 pertsona baino gehiago egoten ahalko. Pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko).
- Gurtza-lekuak ez diren lokaletan: pertsona bakoitzeko 2,25 metro$^2$ bermatuko dira.
- Zeremoniaren ondotik ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan egindako ospakizunak:
  - ∗ Gehienez %60eko edukiera eduki beharra duten establezimenduek 75 pertsonako muga izanen dute barnealdean eta 150 pertsonakoa kanpoaldean.
  - ∗ 21/2021 FA-n ezarritako baldintzak betetzen dituzten establezimenduek mahaien artean 1,5 metroko tartea utzi beharko dute.
- EZ dago baimenduta dantzatzeko pista edo antzekorik erabiltzea.

</td>
</tr>
<tr>
<td rowspan="2">Saltokiak eta zerbitzu profesionaletako jarduerak</td>
<td>➢ Txikizkako merkataritza eta zerbitzu profesionaletako jarduerak</td>
<td>

- Gehieneko edukiera: Baimendutako gehieneko edukieraren %75.
- Beranduenez ixteko ordua establezimendu mota horietarako ezarritakoa izanen da.

</td>
</tr>
<tr>
<td>➢ Hipermerkatuak, azalera ertain eta handiak, merkataritza-gune edo -parkeak</td>
<td>

- Gehieneko edukiera: 60%. Establezimendu horietako arduradunak edukiera kontrolatzera behartuak daude.
- Jolas eremuetan (haurrentzako parke eta antzekoetan) ezin da guztirako edukieraren %50 gainditu.
- Ixteko ordua establezimendu mota hauetarako ezarritakoa izanen da.

</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Merkatuak (merkatu txikiak) | • Barrutiek sartzeko gune bat eta irteteko beste bat edukiko dute, eta biak ongi bereizita egonen dira.<br>• Postuak aurrez aurre bereizita egon beharko dira, igarobide baten bidez. Bide horrek bermatuko du erabiltzaileen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea gordetzen ahal dela, eta 4,5 metroko zabalera izanen du gutxienez.<br>• Elkarren ondoko bi posturen artean elementu isolatzaileak paratuko dira edo 1,5 metroko tartea egon beharko da, gutxienez. |
| Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko zentroak, eta prestakuntza zentroak | • Gehieneko edukiera: 75%.<br>• Gutxienez, 1,2 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean. |
| Liburutegiak eta artxiboak | • Gehieneko edukiera: 75%.<br>• Sustatuko da erabiltzaileek zerbitzuak telematikoki erabiltzea.<br>• Liburutegi eta ludoteketan haurrentzako jarduerak egiten ahalko dira, gehienez ere 20 parte-hartzaile onartuko dira, 12 urtetik beherakoak badira, eta 25 parte-hartzaile, 12 urtetik gorakoak badira.<br>• Ixteko ordua: 24:00ak beranduenez. |
| Kirol-jarduerak | • Edukierak Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarriko dira.<br>• Baimenduta dago saunak, bainu turkiarrak edo antzekoak erabiltzea, baldin eta pertsonen artean 2 metroko segurtasun-tartea bermatzen bada<br>• Kirol lehiaketak eta ekitaldiak ikusleekin egiten ahalko dira, baldin eta baimendutako gehieneko edukieraren %60 gainditzen ez bada, kanpo eremuetan, eta %40, barne eremuetan. Debeku da jatea, edatea, erretzea edo antzeko produktuak hartzea.<br>• Gimnasioak:<br>  * Aurretiko hitzordua aukerakoa.<br>  * Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea. |

| | |
|---|---|
| Kirol jarduera fisiko zuzenduak espazio itxietan eta jarduera fisikoa espazio irekietan | • Pertsonako 12 $m^2$-ko tartea izanen da, mugikortasun handiko jarduerak badira, eta 3 $m^2$-koa, mugikortasun txikikoak badira.<br>• Nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea instalazioetako sarbide eta joan-etorrietan, bai eta kirol-jardueretan ere, intentsitate txikiko modalitateak badira. |
| Igerilekuak | • Gehieneko edukiera: 75% .<br>• Baimenduta dago aldagelak eta dutxak erabiltzea. Erabilera kolektiboko dutxak edukiaren %50 errespetatuta erabiltzen ahalko dira.<br>• Berdeguneetan gehienez ere egon daitezkeen pertsonen kopurua honela kalkulatzen da: pertsonako 4 metro koadro.<br>• Ixteko ordua: 22:00ak beranduenez. |
| Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak | • Gehieneko edukiera: 100%. |
| Monumentuak, erakustaretoak eta museoak | • Gehieneko edukiera: 75%. Nolanahi ere, EZ da 350 pertsona baino gehiago egoten ahalko.<br>• Inaugurazioak eta ekitaldi sozialak egiten ahalko dira jatetxe zerbitzurik ez badago eta edukiera %75koa izanen da.<br>• Bisita edo jarduera gidatuak: 25 pertsonako taldeak gehienez, barnealdean zein kanpoaldean.<br>• Ixteko ordua: 01:00ak beranduenez. |
| Zinema-aretoak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko beste lokal batzuk, eta ikuskizun publikoetarako eta olgetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduak | • Gehieneko edukiera: 75%. 1.000 eta 2.400 pertsonen arteko edukiera duten esparruetarako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da eta $CO_2$ neurgailua eduki.<br>• 2.400 pertsona baino gehiagorentzako edukiera duten esparru itxietan edukiera gehienez ere %40koa. 5.000 pertsona baino gehiagorentzako edukiera duten aire zabaleko esparruetan edukiera gehienez ere %60koa.<br>• Aurretik esleitutako eserlekuak.<br>• Debeku da elikagaiak kontsumitzea ikuskizun edo jarduera hauetan. Zinema-aretoetan eta ikuskizunetarako kafetegien lizentzia duten establezimenduetan jan eta edan ahalko da, aretoek zenbait baldintza betetzen badituzte, betiere.<br>• 1.000 pertsona baino gutxiagorentzako edukiera duten aire zabaleko ekitaldietan jaten eta edaten ahalko da, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta.<br>• Ixteko ordua: 01:00ak beranduenez. |

| | |
|---|---|
| Josteta edo aisialdiko jarduerak aire zabalean | • Gehieneko edukiera: %75. Gehieneko edukiera ezin izanen da inolaz ere 800 pertsonatik gorakoa izan. Edukiera hori gaindituz gero, NOPLOIren txosten loteslea beharko da. |
| Abesbatzak eta musika bandak | • Abesbatzak: entseguak pertsonen artean, gutxienez 1,5 metroko tartea gordeta.<br>• Musika bandak: entseguetan, gutxienez, 3 $m^2$ izan beharko du musikari bakoitzak.<br>• Baimenduta dago kultura arloko jardueretarako izaera fisikoa duten entseguak egitea, pertsonako 12 $m^2$-ko tartea bada, mugikortasun handiko jardueretan, eta 3 $m^2$-koa, mugikortasun txikikoetan. |
| Turismo jarduerak | • Turismo gidariak: gehienez ere 18 laguneko taldeak, aurretik hitzordua hartuta.<br>• Turismo aktiboko eta naturako jarduerak: Gehienez, 25 laguneko taldeendako baimenduta daude, aurretik hitzordua eskatuta. |
| Kanpaldiak eta aterpetxeak eta gazteen egoitzak eta antzekoak | • Etenda gelditzen dira 107/2005 Foru Dekretuak araututako zeharkaldiak egiteko baimenak.<br>• 107/2005 Foru Dekretuak araututako kanpaldiak egiteko baimenak emanen dira: gehienez ere 60 parte-hartzaile, eta monitoreen eta parte-hartzaileen arteko ratioa 1etik 8ra bitartekoa edo txikiagoa izanen da.<br>• Gazteen aterpetxe, gazteen egoitza eta antzekoen baimendutako gehieneko edukiera: %75 |
| Haur eta gazteentzako denbora libreko jarduerak | • Aire zabaleko jarduerak: gehieneko edukieraren %75era, eta gehienez ere 250 lagun, monitoreak barne.<br>• Jarduerak toki itxietan: gehieneko edukieraren %60ra, eta gehienez ere 200 lagun.<br>• Jardueretan 15 parte-hartzaile onartuko dira, 12 urtetik beherakoak badira, eta 20 parte-hartzaile, 12 urtetik gorakoak badira. |
| Haurren aisialdirako lokalak | • Bola-kaiolen motatako haurrentzako atrakzioetan aritzea DEBEKATUTA dago.<br>• Gaztelu puzgarrien antzekoetan edukiera haur bakoitzeko 3$m^2$ eta, gehienez ere, 6 haur.<br>• Derrigorrezkoa da 6 urtetik gorakoek maskara uneoro erabiltzea. |
| Haur eskolak | • Jardueran aritzen ahalko dira jarduera betetzeko prebentzio eta antolaketa protokolo bat izanda. |

| | |
|---|---|
| Biltzarrak | • Telematikoki egitea lehenetsiko da.<br>• Beste formatu bat erabiltzen bada, aurretik Nafarroako Osasun Publikoko eta Lan Osasuneko Institutuari jakinarazi beharko zaio. |
| Topaketak, akziodunen batzarrak, lanbide-elkargoen bilerak, negozio-bilkurak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egitea | • Baimendutako gehieneko edukieraren %75, eta betiere 350 lagun gehienez 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatuz.<br>• Bozketarik egin behar bada, pertsonak mugitzea saihesten duten bozketa sistemak erabiliko dira. |
| Joko eta apustuetarako establezimendu eta lokalak | • Zabalik<br>• Gehieneko edukiera: %60<br>• Ixteko ordua: beranduenez, 01:00ak. |
| Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak | • Ospakizunek pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tarteak gordetzeko neurriak errespatu beharko dituzte, eta ez dira behin ere 75 pertsona baino gehiago izanen barrualdean, eta 150 pertsona gehienez kanpoaldean.<br>• Ixteko ordua: beranduenez, 01:00ak.<br>• Lokalean EZ da dantzalekurik baimentzen. |
| Aisialdiko etxabeak eta elkarte gastronomikoak | • Irekitzen ahalko dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:<br>* Gehieneko edukiera: %60.<br>* Mahaien arteko tartea: 1,5 metro.<br>* Gehienez ere 6 pertsona mahaiaren edo mahaien inguruan pertsonen artean 70 cm-ko segurtasun-tartea bermatuta. |
| Kalejirak | • Ez da segizioa duen kalejirarik baimenduko. |

| | |
|---|---|
| Feria atrakzioak | • Sarbide eta irteera bereiziak.<br>• Gutxienez 1,5 metroko segurtasun tartea bermatuko da bezeroen artean. |
| Herri bazkariak | • Ez daude baimenduta |
| Actividad de plazas, recintos e instalaciones taurinas | • Zezen plazetan eta zezenketetarako esparru eta instalazioetan ez da gehieneko edukieraren %75 gaindituko eta aldez aurretik eserlekuak esleituko dira.<br>• Ez da zezen-ikuskizunik baimenduko zezen-plazatzat hartzen ez diren aire zabaleko tokietan.<br>• 800 laguneko edukiera gainditzen bada NOPLOIren txosten loteslea beharko da. |
| Alkoholaren salmenta | • Debeku da alkohola saltzea 22:00etatik 8:00etara. |